## *OTXANDIOKO UDAL OSOKO EZ OHIKO BILKURAK 2015EKO UZTAILAREN 22AN OSPATUTAKO OHIKO BATZARRAREN AKTA. –*

## *ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE OTXANDIO, EL 22 DE JULIO DE 2015.-*

**Batzarreratuak / Asistentes:**

**Alkate – Presidentea / Alcalde-Presidente:**

*D. Urtzi Armendariz Alzaga jauna.*

**Zinegotziak / Concejales:**

*Dña. Miren Urigoitia Areitio andrea.*
*D. Juan Ignacio Ochandiano Ajuriaguerra jauna.*
*Dña. Irati Axpe Larrañaga andrea.*
*D. Kepa Gonzalez de Audicana Bengoetxea jauna.*
*Dña. Ana Nogueira Murua andrea.*
*D. Beñat Gorospe Iparragirre jauna.*
*D. Endika Garate Goikolea jauna.*
*Dña. Begoña Lasuen Ruiz de Azua andrea.*

**Bitarteko Idazkaria / Secretario interino:**

*D. Enrike Alaña Kapanaga jauna*

---

Otxandioko Udaletxean, 2015eko uztailaren 22an, arratsaldeko 20:00etan eta aurretik egindako deialdia erantzunez, Udal Osoa biltzen da goian aipatutako

En la Casa Consistorial de Otxandio, siendo las 20´00 horas del 22 de julio de 2015 y previa convocatoria cursada al efecto, se reúne en Sesión Plenaria

partaideekin, ez ohiko bilera ospatzeko.

Alkate – Presidenteak batzarra ospatzeko kuoruma badagoela azalduz, Batzarra hasitzat ematen du, gai zerrendan azaltzen diren puntuen azterketa eta ebazpenari hasiera emanez.

**1.- 2015 URTEKO ANDIKONAKO ADIERAZPENA ONARTZEA, BIDEZKOA BALITZ.**

Alkate jaunak aurtengo urteari dagokion adierazpen proposamena irakurtzeari ekiten dio:

**ANDIKONAKO OMENALDIA 2015**

1936ko uztailaren 22an, Andikonako plaza hau Europan zibilen aurka burututako lehen bonbardaketaren zoritxarreko protagonista izan zen. Bertan indar frankistek 61 lagun erail zituzten, euretatik gehienak zibilak eta asko umeak. Urtero moduan, gaur hemen batu garenok gure omenaldirik xume eta sentikorrena eskaini nahi diegu krimen izugarri honen biktima eta euren senide eta lagunei.

Bonbardaketa krudel batekin hasi zenak, tamalez, hainbat hamarkadetan zehar luzatu den errepresio latzean izan zuen jarraipena, gure herria sufrimenduan bizitzera kondenatuz. Gaur egun, garai ilun horretako biktimak oraindik justizia eske dabiltza, eta Espainiar estatuak sekula

Extraordinaria el Ayuntamiento en Pleno, con la asistencia de los arriba señalados.

El Alcalde – Presidente, considerando que existe quórum suficiente, declara abierta la sesión, dando paso al examen y deliberación de los diversos puntos señalados en el orden del día.

**1.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DE LA DECLARACIÓN DE ANDIKONA AÑO 2015.**

El Sr. Alcalde procede a dar lectura a la propuesta de declaración correspondiente a este año 2015:

**HOMENAJE DE ANDIKONA 2015**

El día 22 de julio de 1936, esta Plaza de Andikona se convirtió en desgraciada protagonista del primer bombardeo cometido contra población civil en Europa. Las fuerzas franquistas asesinaron a 61 personas, de ellas la mayoría civiles y muchos niños y niñas. Como todos los años, los que aquí nos hemos reunido queremos ofrecer nuestro más humilde y sentido homenaje, a las víctimas de este horrible crimen, a sus familias y amigos.

Lo que comenzó con un cruel bombardeo, por desgracia, tuvo continuación con la dura represión en las décadas siguientes, condenando a nuestro pueblo a vivir en el sufrimiento. Hoy en día aun, las víctimas de esa oscura etapa, siguen buscando justicia, un reconocimiento que nunca ha

eskaini ez dien aitorpen hori itsasoz bestaldean, Argentinako Maria Servini epailearen ekinbidean aurkitzen ari dira zorionez.

Bide luze eta zail honetan, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu frankismoko biktima guztiei, eta ahal dugun neurrian gure laguntza emateko prestutasuna eskaini. Beraientzat eta arrazoi politikoengatik indarkeria edota giza eskubideen urraketa jasan dituzten eta gaur egun oraindik ere jasaten dituzten alde guztietako biktimentzat, benetako justizia sortutako minaren aitorpenetik, egiaren ezagutzatik eta jasandako kaltearen erreparaziotik bakarrik etorriko baita.

Erabaki politikoak indarkeriaz inposatu nahi izatearen ondorioz Euskal Herriak gehiegi sufritu du azken mende honetan. Eta gure herriak bakea, askatasuna eta elkarbizitza ditu amets. Horregatik, eraiki nahi dugun etorkizuneko Euskal Herrian, giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako edozein proiektu politiko garatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu.

Azken urteotan, elkarbizitza berri baterako pausoak ematen hasiak gara Otxandion Andikonako Foroaren baitan. Bertan, jatorri eta ideologia politiko desberdineko pertsonak batzen gara, bestearen sufrimendua ulertzeko ahaleginetik abiatuta, gatazkaren konponbide integralaren inguruan hitz egin eta hausnarketak konpartituz, elkarrekiko errespetuan eta demokraziaren baloreetan sakonduko duen kultura politiko berritu bat

ofrecido España, y que afortunadamente están encontrando al otro lado del mar, en la acción de la jueza argentina Maria Servini.

En este largo y difícil camino, queremos ofrecer nuestra solidaridad a todas las víctimas del franquismo, y en la medida de nuestras posibilidades ofrecerles nuestra ayuda. Para ellas y para las víctimas de todos los lados, que han sufrido y hoy en día aún sufren violencia o vulneración de los derechos humanos por razones políticas, ya que la verdadera justicia, solo llegará desde el reconocimiento del daño causado, el conocimiento de la verdad y la reparación del mal sufrido.

Durante este último siglo Euskal Herria ha sufrido demasiado por la violencia utilizada para imponer decisiones políticas. Y nuestro pueblo sueña la paz, la libertad y la convivencia. Por eso reclamamos el derecho a desarrollar cualquier proyecto político basado en el respeto a los derechos humanos, en la Euskal Herria que en el futuro queremos construir.

Estos últimos años, hemos comenzado a dar pasos para una nueva convivencia en Otxandio en el marco del Foro de Andikona. En el mismo, nos reunimos personas de distintos orígenes e ideologías políticas, partiendo de la voluntad del comprender el sufrimiento del prójimo, compartiendo reflexiones en torno a la resolución integral del conflicto, con la intención de impulsar una nueva cultura política que profundice

bultzatu asmoz. Iraganari begira egon beharrean etorkizun hobe bat elkarlanean eraikitzeko konpromisoa hartu dugu, eta ibilbide honetan herritarrak bidelagun izan nahi ditugu.

en los valores de la democracia y el respeto mutuo. En lugar de mirar al pasado hemos adoptado el compromiso de construir un futuro mejor entre todas, y en este camino queremos tener como compañeros de viaje a todos los vecinos y vecinas.

Horregatik, Otxandioko herritarrei dei egin nahi diegu adierazpen honi babesa eman eta Andikonako Foroak bultzatutako etorkizuneko ekimenetan parte hartzeko. Bizi dugun garai berriaren protagonista izateko aukera daukagu: baliatu dezagun aukera hori!

Por ello, hacemos un llamamiento a toda la población de Otxandio para que amparen esta declaración y tomen parte en las actividades que en el futuro impulse el Foro de Andikona. Tenemos la oportunidad de ser protagonistas de esta nueva era que vivimos: Aprovechemos la ocasión!

Aho batez adierazpena onartzen da.

Por unanimidad se aprueba la declaración.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, Bilkura bukatutzat ematen da goian aipatutako egunaren 20´35 ordutan, guztiaren akta jaso eta honen sendespena egiten dut Udalaren bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate-Lehendakariaren oniritziarekin.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la Sesión a las 20´35 horas del día al comienzo señalado, de lo cual doy fe como Secretario interino de la Corporación, con el Visto Bueno del Sr. Alcalde-Presidente.

**ALKATEAREN**
**O.E.**

**IDAZKARIA**